


Euskal AEko industria-prezioek % 1,7 egin dute gora 2021eko ekainean, aurreko hilabetearen aldean

2020ko ekainaren aldean, industria-prezioek % 6,7 egin zuten gora

Euskal AEko industria-prezioek % 1,7 egin dute gora 2021eko ekainean, aurreko hilabetearen aldean, EUSTATEN datuen arabera. Ekaineko urte arteko tasa –azken hamabi hilabeteetako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du– % 6,7koa da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Analisi zehatzago batek erakusten du 2021eko ekainean prezioetan aurreko hilaren aldean hazkuntza nabarmenenak izan dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa*, zeinak, *Metalurgia eta produktu metalikoak* bezala, prezioak % 4,2 altxatu baitituzte, eta *Kokeriak eta petrolioaren fintzea*, % 2,9 egin baitute gora prezioetan. Hil artean prezioetan beherakada handienak izan dituzten sektoreak, berriz, honako hauek izan dira: *Produktu farmazeutikoen fabrikazioa* (% 4,8 behera), *Erauzketa-industriak* (% 2,0 behera) eta *Ura* (prezioek % 0,6 egin dute behera).

Helmuga ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenarekin jarraitzeko, prezioen aldakuntzak, aurreko hilarekin alderatuta, hainbat modutakoak izan dira: *Energiarenak* % 1,4 egin du gora, *Tarteko ondasunenak* % 2,8 eta *Ekipoko ondasunenak* % 1,3. *Kontsumo-ondasunenak*, berriz, % 0,4 egin du behera, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* azpisektorean izan den % 0,5eko

beherakadaren ondorioz; izan ere, *Kontsumo-ondasunenean* prezioek % 0,7 egin dute gora, aurreko hilarekin alderatuta.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2021eko ekaina

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2021eka / 2021mai	2021eka / 2020eka
INDIZE OROKORRA	107,1	1,7	6,7
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	104,4	-2,0	-3,1
Manufaktura-industria	108,6	2,1	7,2
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	106,7	-0,1	2,8
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	99,9	0,1	-9,1
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	108,2	1,2	4,2
Kokeak eta petrolioaren fintzen	109,1	2,9	31,1
Industria kimikoa	117,8	2,3	6,3
Botiken fabrikazioa	107,9	-4,8	-1,5
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	99,7	0,1	0,4
Metalurgia eta produktu metalikoak	113,9	4,2	11,7
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	115,4	4,2	13,9
Material eta ekipa elektrikoen fabrikazioa	107,3	0,0	2,4
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	104,6	0,8	1,3
Garraiorako materialen fabrikazioa	104,6	1,6	-3,0
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	108,0	0,1	2,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	98,3	-0,2	3,5
Ura	111,0	-0,6	1,1
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	107,3	-0,4	2,8
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	106,1	0,7	1,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	107,5	-0,5	2,9
Ekipa-ondasunak	107,0	1,3	-0,2
Bitarteko ondasunak	110,0	2,8	7,8
Energia	104,4	1,4	17,3

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan, 2021eko ekainean, 2020ko ekainaren aldean, prezioen igoerarik handienak honako adar hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 31,1 gora), *Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa* (% 13,9ko igoera) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 11,7ko igoera). Prezioen beherakada handienak, berriz, honako sektore hauek izan dituzte: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza* (% 9,1eko beherakada), *Erauzketa-industriak* (% 3,1eko beherakada) eta *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 3,0ko beherakada).

Helmuga ekonomikoaren arabera, ondare-talde handien prezioen aldakuntza, urte arteko aldian, positiboa izan da honako hauen kasuan: *Energia* (prezioetan % 17,3ko igoera izan du),

Tarteko ondasunak (% 7,8ko igoera) eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, (% 2,8 egin dute gora), *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioen % 2,9ko igoeraren eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioen % 1,9ko igoeraren ondorioz. Urte arteko terminoetan, berriz, *Ekipo-ondasunek* % 0,2 egin dute behera.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62